

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, HAINBAT OSASUN-ZERBITZUREN KONTRATAZIOAN KUDEAKETA JURIDIKO ETA EKONOMIKO-FINANTZARIOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE), Eusko Legebiltzarraren Osokoak hala eskatuta, hainbat osasun zerbitzuren hitzarmenean gertatu diren eta Osasun eta Kontsumo Sailak jakinarazi dituen balizko irregulartasunei dagokien kudeaketa ekonomiko eta juridiko-finantzarioaren gaineko fiskalizazio-txostena mamitu du. Eskabideak adierazten du, berebat, Epaitegiaren txostenak bertan zerrendatzen diren hamahiru puntu aztertu beharko dituela eta horien gaineko iritzia eman. Txostena Osokoaren kideen gehiengoak onetsi du, nahiz kideetatik desadostasunezko boto partikular bat izan duen.

Lana mamitu ahal izateko gogoan hartu dira Osasun eta Kontsumo Sailak, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak (KEB) eta Euskadiko Aholkularitza Juridikoaren Batzordeak egindako jarduera eta txostenak. Berebat, eta beharrezko iritzi zaion kasuetarako, kontratazio espedienteen berrikuspena areagotu da, berariaz gauzatutako jarduerekin.

HKEEren txostenak dio 1996tik 2009ra bitartean Osasun eta Kontsumo Sailak eta Osakidetzak sei enpresarekin kontratazio bidez gauzatutako gastuen zenbatekoak 33,6 milioi euro egin zituela guztira eta kontratu bakoitzaren xedea, esleipen prozedura eta zenbatekoa xehatzen ditu. Enpresa horiek Osakidetzako hiru medikurekin lotuak zeuden, bertako akziodunak baitziren.

Ondoren, HKEEren txostenak egindako galdera bakoitzari erantzuten dio eta azpimarratzekoak dira, besteak beste:

-Hainbat kontratu izapidetzean publizitate eta lehia printzipioak urratzea zuzenean esleitu izateagatik, bidegabe larrialdi, publizitaterik gabeko prozedura negoziatu edo kontratu txikiaren moldeak erabilia.

-2005etik 2009ra bitarteko ekitaldietako Osasun eta Kontsumo Sailburuaren Aginduen onespren espedienteetan barne hartutako oroitidazki ekonomikoek, besteen baliabideekin emandako osasun-laguntzako hitzarmenei ezargarriak zaizkien gehiengo tarifak ezartzen dituztenek, ez dute proposatutako aldaketak euskarrituko dituen informazio justifikagarria jasotzen.

Euskadiko Aholkularitza Juridikoaren Batzordearen irizpenaren arabera, 2006ko ekainarren 9ko Ebazpena zuzenbidean erabat baliogabea da legez ezarritako prozedura saihestuta ebatzi izateagatik; izan ere, ebazpenaren alde aurreko prozeduran ez baitziren gutxieneko lotune arauzkoak bideratu eta horrek oinarritik eragin zuen emandako baimenaren oinarri eta helburua eta hori deuseztatzeke arrazoi izan zen.

-Zenbait kontratutan Osasun-laguntzako itunetarako Osasun Sailburuaren Agindu bidez gehiengo modura finkatutako prezioen gaintik beste prezio batzuk finkatzea.

Epaitegiak, gainera, aipatutako enpresekin zerikusia duten hiru medikuen bateragarritasuna aztertu du, Herri Administrazioiko langileen bateraezintasunei buruzko 53/1984 Legean eta aurreko Legea garatzen duen 598/1985 Errege Dekretuan ez ezik, Euskal Herrian funtzio publikoak betetzeko bateraezintasunei buruzko abenduaren 20ko 32/1983 Legean ezarritakoari jarraiki.

Epaitegiak ondorioztatu du aurreko paragrafoan aipatutako analisia abiaburu hartuta eta gogoan izanik hiru medikuek egindako adierazpenak, Osakidetzako Zuzendari Nagusiaren 3368/2009 zk.ko Ebazpen bitartez alde aurretik abiarazitako informazioetatik eratorritakoak, medikuek ez zutela osasun publikoarekin lankidetzak jarduerak betetzeko edo ituna gauzatzeko

bateragarritasuna egiaztatua eta honenbestez, enpresa horiekiko osasun kontratuak baliogabeak direla duten bateraezintasunagatik kontratatzeke debekuan jausi direlako, 53/1984 Legearen 11. artikuluari, 598/1985 Errege Dekretuaren 11.8 artikuluari eta 32/1983 Legearen 7. artikuluari jarraiki.

Amaitzeko, txostenari hainbat eranskin argigarri txertatu zaizkio eta desadostasunezko boto partikularra osotasunean.